Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Julian Alegria Uriarte Landabaso

Bermeo, Bizkaia
(1924-2015)



Aurkibidea

Biografia



Almikako Agirretxun jaio zen. Ama San Pelaiokoa zuen eta aita Arane auzoko Landabasokoa. 5-6 urte zituela Nardiz kalera etorri ziren. Anjelitaren eskolan, fraideetan eta Ojedaren gau-eskoletan ibili zen. Umetan drogeria batean aritu zen laguntzen. Aita errepublikazlea zuen eta gerran ebakuatuta alde egin behar izan zuen. Oso ondo gogoratzen ditu gerrako kontuak. 14 urte zituela itsasoan hasi zen soldadutzara arte. Marinako Almirante Cerveran ibili ostean, herrira bueltatu eta harakin lanetan hasi zen. Beti ibili izan da tratulari eta harakin beharretan eta lanbide horri buruzko kontu guztiak kontatu zizkigun.

Zintak

BRM-078

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-07-06
- **Iraupena**: 64 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k)**: Elizondo, Iratze - Goiria Mendiolea, Nerea

BRM-079

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-07-06
- **Iraupena**: 47 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

BRM-080

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-07-06
- **Iraupena**: 69 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Bilbao Telletxea, Arantza

Pasarteak

1. Baserritik kalera bizitzen

- **Erref**: BRM-078/002
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:04:07. **Bukatu**: 00:05:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Inasek 5-6 urte zituela, Bermeora, kalera etorri ziren baserritik. Etxaldea gurdian eta asto otzaretan ekarri zutela du gogoan. Nardiz kalean jarri ziren bizitzen.

2. Argia eta komuna etxean

- **Erref**: BRM-078/003
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:05:28. **Bukatu**: 00:07:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Argi bakarra izaten zuten Nardiz kaleko etxean: batean piztu eta bestean amatatu. Komuna ezkaratzean (sukaldean) izaten zuten. Beste etxe askotan komunitateko komuna egoten zen, denentzat bat.

Transkripzioa
- Zerak, etxiek, hiru kuarto: bat bi hiru, hiru kuarto okin dotsuzen, hiru kuarto, salie. Ordun argidxe, argidxe argidxe aprobetxa itzen zan bonbille bategaz, ezkatzeko bonbille bategaz salarako sala argidxe aitten ta aman salie, gelie ezan zana. Ta holako zer bat atata argidxe aprobetxa, argidxeri emoten dotsagun: atara ezkatzekue amata ta salakue biztu aprobetxa eitten zan da-ta. Ta kumune, kumune ezkatzien, kumune ezkatzien. Zerozer ezan da hori be, ze kumunek han sasoien eskillaran on dizen kumunek be badauz komunidadientzat. Hiru-lau habitaziñoko etxiek bertan Nardiz kalien eon diez, ezetu dodaz, kumun bet etxe guztidxetarako ta ezkillaran, ezkillaran. Ta hori be zeozer ezan da-ta.
- Ta zelako kumunek?
- Guk e, guk e, ezkatzien Nardiz kalien bizi giñenien. Gero...
- Itxoin.Ta zelakoak ziren kumunek?
- Atie, bueno.
- Kumunek?
- Kumune, kumune taza bat.
- Baie olezkue-edo?
- Olezkue, tapie olezkue, tapie olezkue, orain plastikorik ezan eon da, olezkue. Ta lababorik ta holakorik pentsa bez. Harridxe ezkatzien, harridxe ezkatzien eskuk garbittuteko, arpidxe garbittuteko ta ure egoten zanien hori. Horreittik esan dot nik uren faltie askok ez dakidxila zer dan, baie oniño uregaz txarto eitten bihar dogu /bardu/, guk orain ez du ezautuko, baie gure umien umiek-edo ezetuko dauie uregaz eskasedadie.

3. Soloak errentan

- **Erref**: BRM-078/004
- **Iraupena**: 0:03:16. **Hasi**: 00:07:43. **Bukatu**: 00:10:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Baserritik kalera bizitzen etortzerakoan, solo batzuk hartu zituzten errentan. Kalene baserrikoei alokatu zizkieten soloak. Errenta Domu Santu Egunean ordaintzen zen.

4. Angelitaren eskolatik drogeriara lanean

- **Erref**: BRM-078/005
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:10:59. **Bukatu**: 00:13:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:
Umetan Angelitaren eskolara ibili zen. Inas neba-arrebatatik zaharrena zenez eurak zaintzea egokitu zitzaion. Pintxe moduan ere ibili zen drogeria baten, gerora Bermeoko alkatea izango zenarenean. Angelitaren eskolatik fraideenetara joan zen.

5. Astean 13 txakur handi

- **Erref**: BRM-078/010
- **Iraupena**: 0:03:29. **Hasi**: 00:21:50. **Bukatu**: 00:25:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Gaztetan drogeria batean aritu zen lanean eta argazkiak errebelatzeko laborategia ere bazuten. Karburoa ere saltzen zuten; karburoa zertarako erabiltzen zuten azaltzen du. Astean 13 txakur handi (10 zentimo) irabazten zuen. Irabazitako dirua zineman gastatzen zuten. Zine mutua zen sasoi hartakoa.

Transkripzioa
- Ta beste bat sare-fabrikekue, Antonio, Antonio Garcia, Anton Garcia. Horrek izaten zin horrek, karretie errebelaten ezan dauinak, Kodak. Hori be zeozer ezan da. Drogeri baten hori otie. Ta hantxe bertan, Nardiz kalien, ta ni hantxe pintxe, horrek eitten eta karburue paketatan imintzen. Zer da karburue? Ba, atziñen baserridxetan holako zertxu bet oten zan, ez zanien argirik oten, argirik ez zan oten baserridxetan, herridxen be askorik ez,

esan dotsuten moduen ba bonbille bategaz igual ba etxe guztidxen,batara bestera eindxe, auntxek salara ta bestera, ezkatzara. Karburue saltzien paketatan, killoko paketan sartzien baserridxetarako izaten zan hori. Zer irebazten ezan dot nik astien? Ba astien hamahiru txakur handi, hamahiru txakur handi. Txakur handi izaten ezan dizen “diez centimos”, txakur txikidxek “cinco centimos”. Zentimok be on zien, zentimokuek gitxiau ikusten zien, zentimonekue zer bat on zan ezizena imin zena ojalaterue zentimonekue. Baie zentimuek gitxi ikusten zien, ibiltzen zienak txakur txkidxe, txakur handidxe. Lekeitxon, txori txiki bat, txori handi bet edo haulan. Ta orain hamar zentimokuek, ba bakigu zelakue dan eurue ba orduen txakur. Irabazten ezan dotena hamahiru hamahiru txakur handi. Zetako izaten zan dan hori? Ziñera dxuteko astien baten, astien baten. Ziñek orduen mutuek egoten zien. Hau nau esaten oniño berrogeidxen azpittik gerrie oniño zertu barik on zan. Eta ziñera, total! Txarloten ziñiek eta Txarlot. Gero, kaballistenak eta honek, baie mutuen izaten zien, mutun zen, baie gero traduzidute oten zien erderaz ta aittek leidu eitten gendun. Hori gauze handidxe ezaten zen astien baten ziñera dxutie, mekaguen dios! “Ideal ideal Cinema”, hori, orain zera dana, Nestor Bastarretxea zera dana, zelan deko izena, kasiñuen zeran dau hori. Bai. Ontxe be badau han ziñie, dxuten diz hara ziñera. Ba haixe! “Ideal Cinema” izaten zan, “Ideal Cinema”. Batzokidxe be, horretan urtitan inaugure zan, batzokidxen be ziñie oten zan, geruau be. Ba horixe! Astien ba zeozertxu ba emoten ezan dun. Ta ni bakarrik ez naz egon hor drogeridxen, beste bat be bermeotarra on zan. Maximo, Maximo gure mutil-lagune, antziñeko gure mutil-lagune orain be bada, bizirik dau. Ta haren lehenguso bat be pintxe oten zan.

6. Fraideetan eta gau-eskolan

- **Erref**: BRM-078/011
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:25:19. **Bukatu**: 00:27:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:
Angelitaren eskolatik fraideetara joan zen. Padre Jesus du gogoan, maisu gogorra. Gau-eskolara, Ojedaren eskolara, ere joan zen; egunez lan eginez gero gauez joan behar baitziren. Gaur egun musika eskola dago leku hartan. Bere aitak ez zuen eskolarik; hala ere traturako ez zuen arazorik izan inoiz. Bere gurasoen sasoian erreala erabiltzen zen.

7. Hermanoen ikastetxea ordaindu behar

- **Erref**: BRM-078/012
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:27:46. **Bukatu**: 00:29:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:
Hermanoen ikastetxera ez zen edonor joaten, ordaindu egin behar baitzen. Harresi kaletik Nekazari kaleraino heltzen zen eraikina. Irakasle onak izan arren, gogorrak ziren.

8. Itsasora joan arte "praka txiki"ekaz; jolasak

- **Erref**: BRM-078/014
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:31:01. **Bukatu**: 00:34:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:
Mutikotan beti janzten ziren "praka txiki"ekin. Itsasoan hasi arte beharrean ez zuen praka luzerik jantzi. Kalean zertara olgetan zuten azaltzen du: dienteka, txapaka, pilotaka...

Transkripzioa
- Eta han zuk, zuek uniformerik edo zeozer ibiltzen zenduen?
- Ez, ez. Fraka txikidxekaz, fraka txikidxekaz. Fraka handirik dxantzitzirik pentsa bez. Ez. Fraka txikidxekaz orduen, belaunera arte.
- Neguen be bai?
- Bai, bai, bai, txikidxekaz, txikidxekaz.
- Alaba: Ta zemat urtegaz?
- Fraka luziek e kontu eizu, itxosora hasi nazenien hamalau urtegaz orduntxe fraka luziek. Ta orain txiki-txikitterik fraka luzikaz ibiltzen die ta polittau dauz umiek. Gero gure dxokuek okitzen genduzen kalietan gauez, geure dxokuek "dienteka". Hor horman kontra imiñi, holan planta horman kontra, horma kontran ta gero haren ganera saltaten, osea, horma kontran bat plantaten da horma kontran ta gero bestiek atzien bat, bi, hiru, lau edo bost-edo alkarren ganien.
- Neskakaz?
- Neskakaz be ibiltzen giñen bai, bai. Neskakaz be ibiltzen giñen lagunek okitzen gendun [...].
- Baie olgetan ibiltzen ziñien, olgetan?
- Ez, horretan, horretan mutillek mutilletara. Bai, bai, bai hori geuze zera zan orduen, tabu esaten dxakona ez da.
- Ta zetan gehidxau ibiltzen ziñien?
- Gerua, gero urtiek gorantz etor dizenien ba, orduen bai neskakaz, neskakaz orduen bai.
- Eta baloarik-edo, baloirik-edo okitzen zenduen?
- Zelan?
- Pelotarik edo baloirik-edo.
- Bai, baloie kalien olgaten gendun apur bet ze orduen autorik be ez zan ibiltzen, kalien apur bet. Holan txakur handidxek, txakur handidxek horrek esan dotezenak horma kontrara botaten eta horreri esaten dotsagun, horreri dxokueri, dirue honek honek zerak txakur handidxek txakur txikidxek bota ta holan zeiñek asiau ta zein, horman kontran txapaka, “txapaka” esaten dotsagun horreri txapaka. Txapaka horrekaz txakur handidxekaz. Pelotaka eitxen gendun, galazota dau hondiño, harek letrak borra barik ongo die Andra Mari elizen, Santa María elizen "se prohibe jugar a la pelota, bajo multa" han eitxen gendun pelotara.

- Alaba: Esku pelotan?
- Esku pelotan Bai. Pelotan be bai. Oniño harek bueno, orduko zera pintxurie ba dxun eitten da urte batetik bestera, baie hondiño han ongo da "se prohibe jugar a pelota, bajo multa".

9. Aratusteak galarazita, isilean ospatu behar

- **Erref**: BRM-078/015
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:34:16. **Bukatu**: 00:37:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:
Artzako frontoia ez zen itxia gaur egun bezala. Aratusteak galarazita egon ziren gauza txarrak pasatzen zirelako; hori dela-eta isilean ospatzen ziren. Tostadak jateko ohitura bazegoen.

Transkripzioa
- Frontoirik ez zan egon?
- Bai, bai. Frontoie egon zan, frontoie egon zan auntxek dauen lekuen on zan frontoie.
- Artzan?
- Bai. Hor frontoien.
- Alaba: Igiridxe ezaten zan, ezta?
- Frontoien itxen zien aratustitan egoten zien aratustitako zerak frontoien, nagusidxetzat nagusidxentzat, nagusidxek, nagusi-nagusidxek. Ze gerrie sortu orduko diñot, bai gero hogeita hamaseidxien azpitxik berbetan. Eta fabriketan, fabriketan be oten zan. Jentie batuten zan, jente heldue ze horrek, horrek jaidxek debekatute oten zien orduen, debekatute ta geuze pasaten dizela aratustitan geuze asko pasaten dizela ta itxen ziren ixil-ostuen, ixil-ostuen fabriketan, frontoien be bai. Ze Brasillen be pasaten zien, kristonak pasaten zien Brasillen, iñon zelebraten badan hori dxaidxe, han zelebretan da. Heridxotzak be oten zien e, hori dala ta ez dala. Jentiek urteten dauelez maskarakaz eta horrekaz zerakaz, ba aprobetxa eitxen dauie holako zerak lantzin bateri pasadie emoteko. Ta horixe dala ta ez dala ba hamen ba.
- Baie hori Bermion be bai?
- Bermion bai, Bermion. Oin [gau-argidxe] be dxakintzen zan eta ixilien eitxen zan, ixilien eitxen zien horrek, ta gero Francon denporan oniño gehidxau.
- Ta ze oten zan Bermion aratuste egunien?
- Aratuste egunien ba gu umiok dxazten giñen karatulekaz eta horrekaz.
- Alaba: Marro?
- Marro, marro, marro. Hori bai eitxen izan da, marro. Ez nai ezan eguno dxaztekue. Baten edo bitxen ez daitz imiñi banauen karatulie esaten dotsagun, baie ez nai ezan. Ta gure anaidxek be ez zien izen horrenbesteko zerak. Batzuk dxantzitze ta haretxek edozer, dxantzi dxaidxe aratustitan, aratustitan tostadak bai, tostadak aratustitan goxo. Tostadak! Hori bai.

10. Kamiñero kontuak

- **Erref**: BRM-078/019
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:40:59. **Bukatu**: 00:43:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak

Laburpena:
Lehen "kamiñero" lanbideak ohikoa zen. Horietako bati, Piedra ezizenez ezaguna zenari, gertatutako anekdota bat kontatzen du.

11. "Hausnartu" berbaren inguruko anekdota

- **Erref**: BRM-078/020
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:43:35. **Bukatu**: 00:46:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
"Hausnartu" berbaren inguruko kontakizun bat kontatzen du.

12. Denetariko alderdiak errepublikan

- **Erref**: BRM-078/025
- **Iraupena**: 0:04:19. **Hasi**: 00:56:05. **Bukatu**: 01:00:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:
Centro Republicanoa eta Acción Nacionalista Vascako egoitzak egon ziren Bermeon. Komunistak eta sozialistak ere egon ziren, baina sozialistak ez ziren gaur egungo modukoak. Beraien arteko liskarrak egoten ziren. Monarkiaren aldekoak ere asko egon ziren.

13. Errepublikazalea, baina abadeen lagun

- **Erref**: BRM-078/026
- **Iraupena**: 0:03:36. **Hasi**: 01:00:24. **Bukatu**: 01:04:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak

Laburpena:
Nazionalistak gehiago ziren errepublikazaleak baino. Bere aita errepublikazalea zen, baina abadeen laguna zen. Bere ama, ostera, elizkoia izan zen. Hiletetan andari moduan ibili izan da inoiz, hilkutxa lepo gainean hartuta.

14. "Guardias de Asalto"en inguruko kanta

- **Erref**: BRM-079/003
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:05:13. **Bukatu**: 00:05:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:
Errepublika garaian "Guardias de Asalto"ak ibiltzen ziren. Hauen inguruko kanta abesten du, azalpenak emanez.

15. Errepublika garaiko giro politikoa

- **Erref**: BRM-079/005
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:06:55. **Bukatu**: 00:08:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:
Errepublika garaiko oroitzapenak. "Goardias de Asalto"ak. Behin Jose "Konbetu"ren taberna aurrean gertatutakoa. Manifestazioa egon zen eta mutil batzuk zerura tiroak botatzen hasi omen ziren. Beste greba batzuk ere egon omen ziren garai hartan. CNT eta FAI.

16. Gernikako bonbardaketa nola bizi izan zuen

- **Erref**: BRM-079/007
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:09:55. **Bukatu**: 00:11:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gernika bonbardatu zutenean, soroan zebiltzan lanean eta hegazkinak ikusten zituzten joan-etorrian. Gero, gauean, plaza goienean herri guztia egon ziren Gernika aldean zegoen gorritasunari begira. "Bombas incendiarias".

17. Aita, fusilamendutik ihesi, `Gaztelutarra´ baporean

- **Erref**: BRM-079/009
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:12:32. **Bukatu**: 00:14:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
1937an ebakuazioa egon zen, tarteka jendea fusilatzera eramaten zutelako. Derioko hilerrira eramaten zituzten. Zulo handi bat egin eta han sartzen zituzten denak. "Fosas comunes". Bere aita milizianoa zen eta`Gaztelutarra´ baporean Kantabria aldera ihes egin behar izan zuen, beste askoren antzera.

18. Aita Burdinazko Gerrikoa eraikitzen ibilia

- **Erref**: BRM-079/010
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:14:18. **Bukatu**: 00:15:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Bere aita "Cinturón de hierro" delakoa eraikitzen ibili zen, trintxerak egiten. Goikoetxea ingeniariaren ideia izan zen, Frantziako "Maginot" lerroa kopiatuz. Bilbo babesteko egin zuten, baina ez zuen balio izan.

19. Astoarekin soldaduei elikagaiak eta munizioa eramaten

- **Erref**: BRM-079/011
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:15:38. **Bukatu**: 00:18:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gerratean, astoak eta zaldiak zeuzkatenak udaletxera aurkezteko agindua etorri zitzaien etxera. Han, Bakiora joan behar zutela esan zieten, soldaduei jatekoa eramatera. Handik Jata mendira bidali zituzten elikagaiak eta munizioa eramatera.

20. Talgo-a Goikoetxeak eta Oriolek sortua; Goikoetxearen traizioa

- **Erref**: BRM-079/012
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:18:40. **Bukatu**: 00:20:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
"Cinturón de hierro" egin zuen Goikoetxea ingeniaria eta Oriol izan ziren TALGO trena sortu zutenak. Azken hizkiak euren abizenen adierazgarri dira. Esaten zen Goikoetxeak traizioa egin zuela, eta frankistei informazioa eman ziela. Beraiek jatekoa eramaten zuten lekutik bobardatzen zuten Burdinazko Gerrikoa.

21. Astoarekin soldaduei elikagaiak eta munizioa eramaten

- **Erref**: BRM-079/014
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:21:17. **Bukatu**: 00:24:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Hamabost egun inguru egin zituzten astoekin soldaduei jatekoa eta munizioa eramaten. Diru apur bat irabazi zuten. Soldaduekin eurekin egoten ziren kanpamenduan. Bera zen gazteena; astoekin zeuden beste herritar batzuk izendatzen ditu.

22. Euskadiko gobernua eta dirua

- **Erref**: BRM-079/016
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:24:32. **Bukatu**: 00:26:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa

Laburpena:
Gerratean Euskadiko gobernua sortu zen eta Jose Antonio Agirre izan zen lehendakaria. Euskadiko dirua ere sortu zen. Nolakoa zen azaltzen du. Gero, diru hark ez zuela baliorik eta aldatzera joateko esan zieten.

23. Aita tuberkulosiarekin itzuli zen gerratik

- **Erref**: BRM-079/019
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:26:55. **Bukatu**: 00:29:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:
Aita biriketatik gaixotuta itzuli zen gerratik, tuberkulosiarekin. Astoarekin gertatutako pasadizoa. Gerora, ebakuntza egin zioten aitari, batere anestesiarik gabe. Julian kanpoan zain, aitaren aieneak entzuten.

24. Gerraostean, lanean eta ikasten

- **Erref**: BRM-079/021
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:30:02. **Bukatu**: 00:30:55

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerraostean, aita makalik zegoen eta etxean lan asko izaten zuen, anai zaharrena zelako. Hamalau urterekin itsasoan ere hasi zen. Eta ahal zuenean gau-eskolara ere joaten zen.

25. "Mutil" sartu zen Iriarte motorrean

- **Erref**: BRM-079/022
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:30:55. **Bukatu**: 00:33:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:
Itsasontzi batzuek galdara-makinak zituzten eta gainontzekoak motorrak izaten ziren. Bera "mutil" sartu zen Iriarte motorrean, eta "Irlandianeko" Santos "gizon-mutil". Bi mailen arteko desberdintasuna adinak eta soldatak markatzen zuten. Armadorea eta patroia. Behar handia zuten eta dirua ekartzen hasi zen etxera.

26. Itsasontziko mutilaren lana: tretzak prestatzea

- **Erref**: BRM-079/023
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:33:10. **Bukatu**: 00:33:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak

Laburpena:
Itsasoan egin zuen lehenengo lana "tertzak" (tretzak) prestatzea. "Palangrea".

27. "Tuntuxa": itsasoko baliza edo haurdun dagoen emakumea

- **Erref**: BRM-079/024
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:33:50. **Bukatu**: 00:34:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
"Tuntuxa" esaten diete Bermeon balizei. Gero, haurdun dauden emakumeentzat ere erabili izan da berba hori.

28. Itsasoko mutilaren lana: ordua ematea

- **Erref**: BRM-079/025
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:34:30. **Bukatu**: 00:35:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:
"Mutilak" itsasontziko gizonei "ordua eman" behar izaten zien. Patroiaren aginduz, etxerik etxe joan eta itsasora noiz aterako ziren abisatu behar izaten zien.

29. Antxoa gatzitzeko fabrikak Bermeon

- **Erref**: BRM-079/028
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:37:55. **Bukatu**: 00:39:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:
Gazitze-fabrikak ("salazonerak") egon dira Bermeon, antxoa kontserban jartzen zutenak. Italiarrak izaten ziren erosle onenak. Edozein bodegatan egiten zen antxoa gatzitzeko lana. Kantauriko antxoak fama ona du. Gaur egun arrantzatzeko kupoa du eta debekatuta ere egon zen.

30. Soldadutza Almirante Cervera itsasontzian

- **Erref**: BRM-079/030
- **Iraupena**: 0:04:51. **Hasi**: 00:39:44. **Bukatu**: 00:44:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Soldadutzatik makal itzuli zelako utzi zuen itsasoko lana. Marinan egon zen, Almirante Cervera itsasontzian. Ikastaro batzuk egin zituen eta "timonel-señalero" jarri zuten. Timoia maneiatzen bazekien eta morse kodea ikasi zuen. Seinaleak nola egiten zituzten; hasieran argiekin, gero banderatxoekin. Han bizitakoak. Gose pixka bat ere pasatu omen zuten.

31. Soldadutzan estropadak egiten zituzten

- **Erref**: BRM-079/032

- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:45:43. **Bukatu**: 00:47:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:
Almirante Cervera barkuak bere trainerua zuen, Canarias-ek berea, eta baziren gehiago ere. Soldadutzan zeudela, estropadak egiten zituzten, denbora-pasa gisa eta jateko gehiago lortzearren. Hamahiru lagun eta patroia ibiltzen ziren. Soldadutzatik makalik itzuli zen eta hantxe bukatu ziren bere arrantzako kontuak.

32. Ganadu-tratulari eta harakin

- **Erref**: BRM-080/001
- **Iraupena**: 0:03:41. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Ganadu-tratularia zen aita, eta harekin eta sozioarekin hasi zen tratularitzan ikasten. Gero, Bermeoko merkatuan jarri zuten harategia.

33. Txahalak igerian

- **Erref**: BRM-080/002
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:03:41. **Bukatu**: 00:05:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
"Uraz Handiko" eskualdea da errekaren beste aldekoa (Akorda, Antzora, Ibarrangelu...). Hango abeltzainek Laidara eramaten zuten ganadua. Gasolinoa edo pasaria egoten zen eta hark tiraka, igerian pasatzen ziren txahalak.

34. Txahalak bidean nekatuta

- **Erref**: BRM-080/003
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:05:54. **Bukatu**: 00:07:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Txahalak ez zeuden ibiltzera ohituta, eta, batzuetan, bide erdian geratzen ziren; arraindun kamioien laguntza eskatu behar izaten zuten. Makilakada bat eman behar izanez gero, non eman jakin behar izaten zen.

35. Korta barnean hazten ziren txahalak

- **Erref**: BRM-080/004
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:07:42. **Bukatu**: 00:10:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Korta barnean hazten ziren txahalak, pisua irabazteko. Kanpo-behiak nekezago irabazten du pisua; barnekoaren haragia, gainera, samurragoa izaten da.

36. "Toke oneko" ganadua

- **Erref**: BRM-080/005
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:10:21. **Bukatu**: 00:12:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Txahala erosteko, leku jakin batzuetan ukituz jakiten zuten nolakoa zen (toke onekoa zen ala ez). Gero, berbaz egiten zen tratua.

37. Ganaduaren pisua adostu behar

- **Erref**: BRM-080/006
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:12:05. **Bukatu**: 00:14:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Begiz ateratzen zuten ganaduaren pisua, eta baserritarraren eta tratulariaren arteko adostasuna lortu behar zen. Pisuaren aldea erraldetan (5 kilogramo) hartzen zen kontuan kalkuluak egitean.

38. Hamaiketakoa gibelarekin

- **Erref**: BRM-080/007
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:14:16. **Bukatu**: 00:16:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Baserritarrak zegokion partea eramaten zuten etxera, edo tabernaren batean jan zati bat. Ganadua hil ondoren, hamaiketakoa egiten zuten gibel partearekin; "asiloa" esaten zioten elkartzen

39. Albaitariak gibela eta birikak aztertu

- **Erref**: BRM-080/008
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:16:52. **Bukatu**: 00:18:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
Albaitariak gibela eta birikak aztertzen zituen, aberea hildakoan. Batzuetan, gibela bera bakarrik baztertzen zen, eta gainerakoa erabili. Erabakita egoten zen zein zen gibel txarrari zegokion beherapena.

40. Bermeoko Abere Hiltokia

- **Erref**: BRM-080/009
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:18:22. **Bukatu**: 00:19:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
Bermeoko hiltegian, Artika bidean, hiltzen zuten ganadua. Ez zegoen abere-hiltzailerik, harakinek berek hiltzen zuten ganadua.

41. Nola hil ganadua

- **Erref**: BRM-080/010
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:19:50. **Bukatu**: 00:21:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
Lehenengo mailuaz bekokian jota hiltzen zuten ganadua. Geroago, ganadua hiltzeko pistola berezi bat erosi zuen, eta bera izan zen lehengoa hura erabiltzen Bermeo inguruan. Berehala hiltzen zen ganadua eta zuloa geratzen zitzaion kopetan.

42. Zuloa ganaduaren garunetan

- **Erref**: BRM-080/011

- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:21:29. **Bukatu**: 00:23:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
Neurologo batek eramaten zituen batzuetan ganaduaren garunak, eta behin kezkaturik galdetu zion zergatik zuten zuloa garunek. Pistolaz hilez gero geratzen zen zuloa zen; baina era horretan sufrimendurik gabe hiltzen zen aberea, bat-batean.

43. Nola larrutzen zen ganadua

- **Erref**: BRM-080/012
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:23:56. **Bukatu**: 00:26:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

Laburpena:
Osorik atera behar izaten zen larrua; zuloa izanez gero, prezioa jaisten baitzen. Zapatagintzan erabiltzen zuten, lodieraren arabera, lan ezberdinetarako.

44. Txahala lau zatitan

- **Erref**: BRM-080/013
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:26:40. **Bukatu**: 00:28:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
Aizkoraz zatitzen zen txahala lau zatitan. Zati horietatik ateratzen ziren txuleta-zintak.

45. Haragi-garraiatzaileak

- **Erref**: BRM-080/014
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:28:15. **Bukatu**: 00:29:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
Haragi garraiatzaileak egoten ziren, eta pisu handiak mugitu behar izaten zituzten. Kiloko ordaintzen zitzaien egindako lana.

46. Hozkailuak haragia gordetzeko

- **Erref**: BRM-080/015
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:29:40. **Bukatu**: 00:33:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:
Elur-fabrika zegoen, eta biltegi bat zuten han haragia hotzean gordetzeko. Harategi berrian hozkailua jarri zuten, geroago izozkailua.

47. Balantzatik gaurko kutxa erregistratzailera

- **Erref**: BRM-080/017
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:36:17. **Bukatu**: 00:37:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Hasieran, baskula erromatarra erabiltzen zuten; gero, mekanikoa; eta azkenean, tiketa ere ematen zuena.

48. Jendearen gustuko haragia

- **Erref**: BRM-080/018
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:37:17. **Bukatu**: 00:38:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura

Laburpena:
Azpizuna izan da beti txahalaren zatirik estimatuena. Faldie edo hegala geratzen zen saldu ezinik.

49. Neurriak

- **Erref**: BRM-080/019
- **Iraupena**: 0:03:56. **Hasi**: 00:38:23. **Bukatu**: 00:42:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Hiru libra laurden ziren 375 gr. Libra eta erdi ziren 750 gr. Ezin zen beti zehatz asmatu pisua. Ikuskaria etortzen zitzaien pisua kontrolatzera eta zuzentzera.

50. Festetako okelak

- **Erref**: BRM-080/020
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:42:19. **Bukatu**: 00:44:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Herriko festetan, txuletak, azpizunak eta frijitzeko haragia saltzen ziren lehenen. Faldie edo hegala saldu ezinik geratzen zenean, txorizo-fabriketara saltzen zuten. Gabonetan, San Jose inguruan eta Pazkoetan arkumea saltzen zen gehien.

51. Ezarrita egoten zen haragiaren prezioa

- **Erref**: BRM-080/022
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:44:54. **Bukatu**: 00:48:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:
Beti egon dira inspektoreak. Haragiaren prezioa ere ezarrita egoten zen. Batzuetan, lehorteagatik edo, ganadua kendu beharra egoten zen eta merkeago erosteko aukera egoten zen. Hegala oso merke saltzen zitzaien txorizo-fabrikei, eta hura kobratu ezinik ere ibiltzen zen batzuetan.

52. Larrua estraperlorako

- **Erref**: BRM-080/023
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:48:12. **Bukatu**: 00:50:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Ekonomia eta industria » Kontrabandoa
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

Laburpena:
Deklaratu egin behar izaten zen larrua, eta oso prezio baxua ezarrita zuen. Askok larrua saltzen zuten estraperloan; horretarako hiltegitik kanpo hiltzen zen ganadua, deklaratu gabe.

53. Itsasorako okela

- **Erref**: BRM-080/024
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:50:05. **Bukatu**: 00:52:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

Laburpena:
Itsasontziek egiten zizkieten enkarguak, gizon kopuruaren eta itsasoko egunen arabera. Txuleta, gisatzeko haragia, txorizoak eta abar erosten zituzten.

54. Tabernetarako okela

- **Erref**: BRM-080/025
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:52:05. **Bukatu**: 00:54:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Tabernek beti eskatzen zuten haragi ona; txuletak eta azpizunak amaitu egiten ziren. Sarritan harakina bera joaten zen Bilbora tabernak hornitzeko; Andra Mari festetan gertatzen ziren horrelakoak.

55. Behi arrazak

- **Erref**: BRM-080/026
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:54:10. **Bukatu**: 00:56:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Behi arrazak: txarolesa, limusinak, blondak (oso ederrak), pirenaikoa. Harakinak hezurraren tamainari begiratu behar dio; antzina, hezurra bera ere saltzen zen.

56. Ehuneko 25eko galera

- **Erref**: BRM-080/027
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 00:56:22. **Bukatu**: 00:57:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
Hezurra eta seboa kontuan hartuta, abere batean ehuneko hogeita bost edo hogeita hamar galtzen zen.

57. Harakinen zaindaria, San Markos

- **Erref**: BRM-080/029

- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:57:14. **Bukatu**: 00:59:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

Laburpena:
San Markos eguna, hasieran, denek batera ospatzen zuten; baina lehia eta inbidia tarteko, banandu egin ziren. Sarritan, bazkaltzeko orduan, itsasorako enkarguak prestatzen aritzen ziren.

58. Txorizo onak nola egin

- **Erref**: BRM-080/031
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 01:01:01. **Bukatu**: 01:04:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Piper txorizero ona da txorizo onaren sekretua. Murtziatik ekartzen zuten piperra.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-29

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com